

391/2025 EBAZPENA, apirilaren 7koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Donostialdeko ESiko Mikrobiologiako (Bakteriologiaren eta erresistentzia antibiotikoaren arloa) Atal Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen otsailaren 19ko 226/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESiko Mikrobiologiako (Bakteriologiaren eta erresistentzia antibiotikoaren arloa) Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa sistemaren bidez (2025ko martxoaren 5eko EHAA 44 zk. eta 2025eko martxoaren 12ko BOE 61 zk).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko apirilaren 2an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.— Donostialdeko ESiko Mikrobiologiako (Bakteriologiaren eta erresistentzia antibiotikoaren arloa) Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea (I. Eranskina).

Bigarrena.— Ebazpen hau Osakidetza webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Donostialdeko ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostia, 2025eko apirilaren 7a.

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentea.
EB (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa).

Langileen zuzendaria,
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.
DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA
LANGILEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAS

I. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIKO MIKROBIOLOGIAKO (BAKTERIOLOGIAREN ETA ERRESISTENTZIA ANTIBIOTIKOAREN ARLOA) ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Miriam Alkorta Gurrutxaga.

Baztertuak:

- Inor ez.

Donostia, 2025eko apirilaren 7a.

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.